

## PAPEL CRÍTICO 73

Asier Amezaga Etxebarria\*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

### Akelarre

Generoa: Drama

Zuzendaria: Pablo Agüero

Nazionalitatea: Euskal Herria-Espainia-Argentina-Frantzia

Ekoizlea: Sorgin Films, Tita Productions, Kowalski Films, Lamia Producciones, La Fidèle Production

Iraupena: 90 minutu

Urtea: 2020

### SARRERA

XVII. mende hasierako kostaldeko herri batean, neska talde baten jolasa eten egiten du Rostegi inkisidoreak. Neskak giltzapetu eta sorginkeriaz akusatuko ditu eta, horrekin batera, sabbat edo akelarrearen erritual satanikoaren gaineko testigantzak jaso. Pablo Agüero zuzendari argentinarrak Pierre de Lancre magistratuak burutako sorgin-ehiza eta berak jasotako lekukotzak izan zituen inspirazio-iturri filma osatzeko (Agüero, 2020). Filmerako inspirazio-iturri izan den historiaren arabera, Frantziako Erregearen aginduz, Lancre magistratuak sorgin-ehiza burutu zuen Senperen, ehunka lagun torturatu eta erail zituen bertan. Marine-lak itzuli zirenean, inkisizioaren sarraskia ikusi eta herrixkak matxinatu egin ziren. Filmeko istorioan, ostera, Espainiako Erregearen aginduz dihardu Rostegi magistratuak inkisidore eta, oraingoan, sorgin izatea leporatzen dieten emakumeek marinelen etorreraren zain ematen dute filma, haiek sarraskitik salbatuko dituztelakoan.

Prozesu hura Euskal Herriko sorgin-ehizarik entzutetsuenaren aurrekaria izan zen, Zugarramurdikoa hain zuzen ere. Genero zinematografiko ezberdinak baliatu dira gertakari hura erretratatzeko: historikora jo zuen Pedro Oleak *Akelarre*-n, izen bereko filmean (Olea, 1984), eta bertan sorginak aurkeztu zituen Espainiako koroak bortxaz kristaututako euskal jendarte pagano gisa. Terrorezkora, ostera, Alex de la Iglesia *Las brujas de Zugarramurdi*-n (de la Iglesia, 2013), sorgi-

\* **Harremanetan jartzeko / Correspondence to:** Asier Amezaga Etxebarria. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Departamento de Sociología y Trabajo Social. Barrio Sarriena, s/n (48940 Leioa) – asier.amezaga@ehu.eus – <http://orcid.org/0000-0003-3976-2830>.



nen iruditeria eguneratzeko collagea osatu zuen, komediazko ukituak emanez, sexuen arteko gerran gizon inozo eta emakume zitalak aurrez aurre jarritz. Zugarramurdiko sorginen auzia, inkisidorearen irudimenak asmatutako fantasia izan zela ondorioztatuko zen urte gutxi batzuen ondoren (Azurmendi, 2013), eta halere iruditeriak leku horretara loturik jarraitzen du.

Azken urteotan Euskal Herrian sorgin ehizak gogoeta feminista eta poskolonialerako abaguneak zabaldu ditu, eta tamalez film hauek zein bestelako adierazpen kulturelek ez dute eztabaida horien neurriko iruditeria berririk asmatu (Artza, 2020). Ildo horretan, ezinbesteko erreferentzia bihurtu da Silvia Federici-ren (2017) ikerlana, bertan jorratzen ditu sorgin-ehizak kapitalismoaren metatze primitiboan eta gorputzen diziplinamenduan izandako eragina. Prozesu horien oinordekoa da sorginen inguruan egun dagoen imajinarioa, terrorezko filmen zein umeen ipuinen bitartez etengabe gogorarazia. Honen jakitun (Zubiria, 2020), Agüerok terrorezko generoari zein genero historikoari uko egin eta iruditeria horren sorrerari buruzko fabula bat asmatzen du. Horretarako, Pierre de Lancre pertsonaia historikoarekin aise identifikatu daitekeen Rostegi fikziozko pertsonaiaren fantasiaren gaineko fabula osatzen du, inkisizioaren eta horrek gorputzen duen instituzioen fantasiaren gaineko kontakizuna.

Ez da film historikoa sorginkeria leporatzen zaien neskek, hitz egiteko, jokatzeko eta pentsatzeko modu garaikidea dutelako. Ezta terrorezko filma ere, izan ere, beldurraren iturburuan dauden fantasien arbitrariotasuna agerian uzten du. Hala ere, genero horietako iruditeriarekiko zordun da, iruditeriaren sorreraren inguruko kontakizunera bideratzen baitu ikuslea. Iruzkun honetan ildo horri erreparatu nahi diot, hain zuzen ere, sorgin-ehizaren fabula asmatuaz, identitatea, begirada eta desirari istorioa asmatzen diolako. Aurrena, inkisidore eta ustezko sorginen artean kontakizun edo narrazioak hartzen duen lekua jorratuko dut. Ondoren, filmaren garapenak interpelazioen teoriari egin diezazkiokeen ekarpenak aztertuko ditut, horretarako *irudimen* eta *irudimin* hitzak baliatuko ditut, ideologiaren alderdi sinboliko eta gorputzuak bereizi eta sorginak ez diren sorginek inkisidorea nola sorgintzen duten azaldu.

## KONTAKIZUNA ETA BEGIRADA: SORGINEN IPUINA


Nesken talde-batasuna bortxaz apurtu eta haien aitortpena lortzeko saiakerek ematen diote hasiera filmari. Horrekin, badirudi zapalkuntzaren gaineko alegoria bat izango dela filma edo, aurreko *Akelarre* (Olea, 1984) bezala, zapalkuntzaren gaineko ustezko egia historikoak kontaktzen dituen filma. Paper guztiek era argian banatuta dirudite: Madrildik soldaduek eskolatuta datorren inkisidorea; lurraldeko informatzaile, itzultzaile eta eskribatzaile lanak egiten dituen apaiz jesuita; egin ez duten delituengatik zigortu nahi duten gazteria; eta prozesu guztiaren ikusle eta inkisidoreari ostaturia eta jana ematera behartutako herritarrak. Era horretan, neska taldea herri zapalduaren lurraldea sinbolizatzeko ohizko topikoa errepikatzen duela dirudi (Retolaza eta Sarriugarte, 2015). Baina amarru horretaz jabetu garenerako, trama naif horren gainean beste bide bat hartzen du istorioak. Egoerari aurre egiteko, neskei leporatzen zaiena bere gain hartu eta inkisidorearen aurrean egokitu zaien papera interpretatzea deliberatzen dute.

2017an Euskal Herritik egin zuen bidaiari zehar, Zugarramurdiko kobazuloen inguruko dendetan salgai zeuden sorginen oroigarriek Silvia Federiciren haserrea piztu zuten (El Salto TV, 2017). Salgai zeuden irudi eta panpinek Inkisizioak osatutako sorginen irudikapenari oihartzuna ematen zioten eta, honela, indarrean mantentzen zuten emakume haiei irakatsi nahi zitzaizkien lezioa. *Las brujas de Zugarramurdi* filmean ere antzeman daiteke iruditeria hori. Itxuraz,

iruditeria eguneratzen saiatzen da filma, baina irudikapenaren indarkeria erreproduzitu egiten du. Film honetan ere antzestu egiten du akelarrea bukaeran. Horretarako, hainbat elementu berriren arteko collage moduko bat osatzen du. Zugarramurdiko kobazuloetan akelarre garaikidea den aldetik, kontserbazio arrazoiengatik gutxira arte egin izan diren akelarre errekreazio-jaiak gogorazten ditu, euskal herri ezberdinetako inauterietako pertsonaiak eta Mikel Laboaren musika bihurtzen ditu sorginkeria erritualaren osagai. Bukaeran, aker itxurako deabruaren agerpenaren orde, sorginek deabru matriarkala inbokatu egiten dute. Willendorffeko Venus itsu eta erraldoi baten itxura ematen zaio inbokatzeko jainkosari. Ustez, Inkisizioaren kontakizunetik aldentzeko egindako collage ariketa honek galdera interesgarriak planteatzen ditu. Galdera horiek sorginen gaineko kontakizunak berreraikitzeke zailtasunak agerian jartzen dituzte (Díez Mintegui, 1999). Hain zuzen ere, Willendorffeko Venusen dispersio geografiko eta tenporalarekin harrিতuta, arkeologoak ustezko ugalkortasun jainkosa honen errepikakortasuna azal zezakeen hari imaginarioaren bila aritu ziren. McDermott arte historialariak errepikakortasun horren azalpen askoz prosaikoagoa eman zuen: emakume haurdunen autoerretratuak ziren (McDermott, 1996). Hori demostratzearekin batera, ordura arteko azalpenen izaera patriarkal eta desharagiztatua ere demostratu zuen.

### 1. irudia

Willendorffeko Venusen eta Zugarramurdiko kobazuloaren irudikapenak



Ezkerrean, goian, 26 urteko emakume haurdun kaukasiar baten autoerretratuak eta behean ikuspegi berberetik Willendorffeko Venus bati egindako argazkia. Irudiak bere hipotesia demostratzeko erabili zituen LeRoy McDermottek (1996). Goian, eskuinean, Zugarramurdiko leizeetan 2009an ospatutako sorgin-eguna (Argia, 2010). Behean, eskuinera, *Las brujas de Zugarramurdi* filmeko fotograma bat (De la Iglesia, 2013), bertan Willendorffeko Venusaren itxurako jainkosa bat agertzen da goiko irudiko leizeetan burututako akelarrean.

Kasu horrek agerian uzten du iruditeria hauen gaineko kontakizunean ezartzen den indarkeria, noraino hel daitekeen emakume artistak haien obretatik desjabetzeko jakintza-modu patriarkala. Film hartako (de la Iglesia, 2013) jainko matriarkal horren itsutasunak irudikatzen du emakume artistaren aitortza ukatu egiten duenaren itsutasuna dela. Hain zuzen ere, ikuspegia aldatu behar zaio eta begiak kendu, collage horren bitartez kontakizuna osatzeko. Sorginen inguruan osatutako iruditeria eta kontakizunen hutsuneen jakitun, Agüerok hutsune horiek betetzeko osatutako fantasien gaineko fabula bat asmatu egiten du. Era honetan, Agüeroren filmak bat egiten du indarkeriaren irudikapena egin ordez irudikapenaren indarkeria agerian uzten duten bestelako euskal filmeekin (Gabilondo, 2002).

Hutsune bat betetzera doa Rostegi inkisidorea Erregearen gortetik euskal kostaldeko herrixka hartara. Fantasia hutsuneak betetzeko saiakerarekin osatzen den irudi multzoa da, eta hutsune hori eta fantasiaren bitartez betetzeko beharra baliatuko dute ustezko sorginek bizirik ateratzen saiatzeko. Azken batean, hutsunea dira sorginak, zigortuak izateko gorputzez bete arte. Sabbata ere hutsunea da, erritualaren gaineko testigantzaz bete arte. Nesken artean, Anaren (protagonistaren) aholkuak gailendu egiten dira, eta Inkisizioaren funtzionarioaren hutsune horiek baliatzen dituzte kontakizunaren erritmoaren agintea hartzeko. Errudunaren papera onartuz eta, aldi berean, haien patua atzeratuz, ilberrira arteko denbora irabazten saiatzen dira, Ternuan marinel dabiltzan gizonak itzuli eta giltzapetik askatuko dituztelakoan. Topika hau ez da berria, *Odiseako* Penelope edo *Mila gau eta bat gehiago*-ko Xerezaderen irakurketak dakartza gogora. Hasieran promestu egiten zaigun kontakizun mitikoari itzuri egin eta kontakizunen mitoetara jotzen du filmak. Penelopek Ulisesen itzuleraren zain bere hil-oihala ehuntzen eta desegiten uxatzen zituen etortzen zitzaizkion ezkongaiak. Xerezaderek egun bat irabazten zion Sultanari gauero kontatzen zion ipuina nola bukatu zain uzten zuenean. Ana eta bere lagunek haien kondena luzatu egiten dute Rostegiren nahiei erantzuteko sabbatari buruzko zehaztasun berriak asmatuz.

## 2. irudia

Rostegi magistratua Ana ustezko sorginaren kontakizuna aditzen



Iturria: Agüero, 2020.



Hain zuzen ere, Xerezaderen ipuinak ondo baino hobeto islatzen du kontakizunaren eta desiraren arteko harreman estua. Kontalaria eta entzulea transakziorako prest dituen desira-ortzimuga da ipuin edo kontakizuna (Barthes, 2001: 73-74). Lehen irakurketa batean esan genezake, kontakizunarekiko Rostegiren desira baliatzen dutela erruztatutako neskek bizirik irauteko. Xerezadek heriotza atzeratzen zuen bezala, eteten dituzte torturak neskek ilargi berriaren zain. Neskak kontu kontari hasi eta amaitu egiten dira torturak, inkisidore eta sorginaren arteko menpekotasun harremana kolokan gelditzen da kontakizunak iraun bitartean. Anaren kontakizunarekiko desirak sorgindu egiten du Rostegi, eta hala ematen digute aditzera bere begi nini hipnotizatueta ipuin kontalariaren irudia islatuta ikusten dugunean. Jarraian aztertuko dudun bezala, hasierako inkisidorearen interpelazioan osatutako harremana alderantzikatu egiten da, kontakizunak osatzen duen suspense egoerari esker (Barthes, 2009: 258-262). Sorginak ez dira sorginak, eta hala ere, inkisidorea sorgintzea lortzen dute.

## IRUDIKAPENA, IRUDIMENA ETA IRUDIMINA

Hautu narratibo hauek azken ondorioetara eramaterakoan, filmak egoera interesgarrietan kokatzen gaitu, ustezko sorginen eta inkisidorearen arteko harremanek identitatearen formakuntzan, desira eta begirada gurutzatuak irudikatu egiten ditu. Horretarako, Althusserren *Ideologia eta Estatuaren Ideologia-Aparailuak* (2003) fabula honetara ekar daiteke. Hala, esango genuke Rostegik Inkisizioaren Ideologia-Aparailuen (IIA) katebegi gisa jarduten duela lurralde horietara neska banakoak sorgin gisa interpelatzen dituenen. Interpelazioan, botere harreman hierarkiko eta itxiaz haratago, interpelazioa hutsune bat sare ideologiko batera josi egiten duen identifikazio prozesua da. Hain zuzen ere, interpelazioak gizabanakoak subjektu bihurtzen ditu, hau da, subjektua sortu eta txertatu egiten du sare ideologiko jakin batean.

Interpelazioak subjektu interpelatuaren gutxieneko konplizitate bat behar du, poliziak akusatuari dei egiten dionean, akusatuak burua itzuli egin behar du, eta mugimendu horrekin batera bete dezake subjektu interpelatuaren hutsunea (Butler, 2010). Horretarako jartzen du indarrean erritual osoa Inkisizioak, akusatuak atxiloaldi, tortura, testigantza eta fede-auto publikoan bekadari gisa ager daitezzen. Interpelazioan, honela, itxuraz kontraesankorrak diruditen jatorrizko bekatua eta inozentzia demostratzeko nahiak eratzen dute erruztatuaren konplizitatea. Kasu honetan, inkisidoreak sorginen irudimenezko espazioa bete dezaten hezur-haragizko gorputzak erreklutatu behar dituen bezalaxe, ideologiak gorputzak interpelatu behar ditu subjektu gisa. Komeni da hemen ohar txiki bat egitea. Althusserren testuan, berez, gizabanakoak dira interpelatuak, baina hemen gorputza hobetsi dut, Butlerrek egiten dizkion emendakinak kontutan hartuz eta aski problematikoa delako sare ideologikoaren aurreko gizabanakoez hitz egitea. Nor da hitz egiten duen ni-a aldeztu aurretik sare ideologiko batean, gramatika batean, txertaturik ez badago (Butler, 2018: 279-286)? Estatu erregistroetan erroldatutako eta beren dokumentuak soinean daramatzaten gizabanakoak balira bezala, filmaren hasieran inkisidoreak neskak izen-abizenegiz egiten dien interpelazioa ere aski problematikoa da, historikoki behintzat sinesgarritasun eskasekoa, neska elebidun eta alfabetatuak ageri zaizkigunengan bezain gutxikoa. Film honi ere barka dakioke Althussereri barka dakiokeena, sare ideologikoan jausi aurretik existitzen den gizabanakora jotzea. Beraz, sare ideologikoan erabat formatu ez den entitate horri *gorputza* dei dakioke hemen eta, honela, bide batez, hurbilpen haragikoiagoa egin.

Filmaren bigarren zatian zehar, kontakizunarekiko desira apurka-apurka kontalariarenganako desira bihurtzen da. Inkisidorearen anbizioari ez zaio aski sorginak kondenatu eta Madrilerantz itzultzearekin, akusatutakoekin duen harremanean sorginduta, sabbataren forma haragiztatuaren testigantza jaso nahi du. Inkisidoreak, Legeak, interpelazio orok bezala, erruztatuen buruen gainean fatalitate sistema bat osatzen du, «ez delitua egin aurretik galarazteko, baizik eta erruztatua, delitua egin aurretik ere, bere patuari lotuta egon dadin» (Sánchez Ferlosio, 2007: 113-114). Interpelazioan osatzen den subjektu eta gorputzaren arteko harremana irudimenezkoa bada ere, sostengu materiala behar du. Hemen Althusserren harreman imajinarioa, *irudimenezko harreman* gisa (Althusser, 2003: 139) euskaratu dudanez, sostengu material horren berri ematen duen osagaiari *irudimin* deituko diot. Inkisidoreak *irudimenezko* sorginaren hutsunea betetzeko hezur-haragizko errudunen bila jotzen du euskal lurraldeetara, era honetan irudikapena *irudimenari* euskarri materiala eskaintzeko prozesu gisa uler daiteke. *Irudimenak* uzten duen hutsune hori da *irudimina*, irudimena irudiz betetzeko joera edo bulkada, nahi bada. Irudizko euskarri horren beharra, *irudimina*, baliatzen du neska taldeak inkisidorea kontakizunera engaiatu eta harreman horretan sorgintzeko. Sorgin-ehizaren inkisizioaren *irudimenaren* beste aldean, sorginkeriaren *irudimina* dagoela erakusten du filmak, hau da, irudimenezko hutsunea betetzeko joera obsesiboa. Sabbata Deabrua edo Ilunpeetako Jauna ilargi argitara ekartzeko saiakera da, eta irudimina inkisidoreak bere begiradari ezkututzen zaiona deskubritzeko nahia. Balizko sorginen arteko balizko harreman sekretu horrek ematen die aukera Ana eta bere lagunei inkisidorea sorgintzeko.

Inkisidorearen *irudiminak* bihurtzen du sorginkeriaren harrapakin, erritual gorputzuaz jabetzeko nahiak, ezagutza nahiak harrapatuta, neskek asmatutako erritualaren elementuek hurrengoaren promesa eskaintzen diote, Xerezaderen ipuin amaigabeek bezala. «Ez dugu nahi beste berorik zuen musuen sua baino» kantua edota erritualerako asmatzen dituzten apo eta aker garezurrez osatutako natura hila transkribatu eta kopiatzeko agintzen du inkisidoreak. Honela, inkisidorea musikalki, bisualki eta eszenografikoki engaiatu egiten dute sorginek, baita sexualki ere. Inkisidorearen irudiminak desira sexualarekin egiten du bat filmak aurrera egin ahala. Inkisizioaren funtzionarioaren begiradak bat egiten du gizonaren hezur-haragizko begi heterosexualekin. Begirada begiaren bi hari horiek bat bera dira, irudimena eta irudimina edota hizkera lacanianoan, irudimenezko hutsunea osatzen duen gune *Sinbolikoa* eta betetzeko ezinbestean gehiegizkoa den hezur-haragizko *Erreal*a. Irudimenaren mugimenduan, pertsona baten gorputza objektu partzialera murriztuz gauzatzen da subjektua, eta erruztatutako neskek egiten duten guztia sorginek egindako ekintza bihurtzen dira honela. Irudimenaren mugimenduan, ostera, subjektu-batasun hori hautsi egiten da, gorputz atalak organo partzial bihurtzen dira, pornografia gogorak ohizkoa duen lehen plano eta gorputz bihurtuen gainezarpen errepikakorraren bitartez (Žižek, 2006: 197-202). Honela, inkisidorearen begirada voyeurra begirada pornografikoa bihurtu egiten da bukaeran, akelarreaken erritualizazioak ere kutsu pornografiko nabarmena hartzen du, itsaskorra egiten da, gorputz bihurrikatu eta partzialez betetzen dira planoak neskek sabbata edo akelarrea antzestu egiten dutenean.

Fabula honetan, beraz, irudiminak harrapatu egiten du inkisidorea sorginkeriaren erritualera. Fabula honetatik haratago, oroimen kolektiboetan, sorginek inkisizioaren iruditeriara harrapaturik jarraitzen dute. Ikusleak aise atzeman dezake akelarreaken antzezpen edo *performance* horretan sorgin-ehizan eraikitako iruditeria, Federici haserretu zituen panpinena edo umetako ipuinen edo terrorezko filmena. Willendorfeko Venusarekin gertatu bezala, irudikapenaren indarkeriaren bitartez ixten da sorginaren subjektu formakuntza.

### 3. irudia

Sabbat edo akelarrearen taularatzearen fotograma batzuk



Iturria: Agüero, 2020.

«Akelarre» euskal hitzak arrakasta izan zuen, «sabbat» hitz hebrearraren lekua hartuz. Produktu ideologiko bat izan zen, itzulpen oker batena, zeinaren bitartez inkisidoreek deabruari hitz sekretua ostendu egiten ziotela esan zezaketen (Azurmendi, 2013: 137-146). Hain zuzen ere, inkisidoreak sabbataren liturgiaburua zigortu eta liturgiaren testigantza gaztelaniaz jasotzera jotzen du herrixkara eta trukean jasotzen duena akelarre euskal hitza da. Euskarazko hitza eraman behar du bueltan darabilen hizkuntzari gainezka egiten dion fenomenoak kodifikatu ahal izateko, propioa ez den kode bitxi batean kodifikatu egiten du. Inkisidorearen begiradaren sabbata kodifikatzeko ezinbestekoa ditu hezur-haragizkoak eta gainezka egiten dizkioten gizonaren begiaren akelarrea jasotzea.

Bide hau egin ondoren itzul gintezke filmaren hasierara, Rostegik nesken jolasa eten eta izen-abizenez deitu egiten dituenean. Orduan bai esan daitekeela inkisidoreak Estatuaren mandatarari gisa jokatzeko duela. Inkisizioaren ondoren, nesketako bakoitzak badaki nolakoa duen izen-abizena eta nola jokatu behar duen inkisidoreak deitu egiten dituenean. Orduan neskek esleitu zaien papera jokatzeko aukeratu dezakete. Eta, honela, fabula hau etengabe itzultzen den kontakizuna bihur daiteke.

## ONDORIOAK

Sorginen gaineko iruditeriak Inkisizioaren kontakizunarekin duen zorraren jakitun, Pablo Agüerok terrorezko generoari zein genero historikoari uko egiten dio fabula bat asmatzeko. Pierre de Lancre inkisidorearen idatziak arakatu eta idatzi horiek azaltzeko, inkisidorearen irudimena eta begirada bihurtzen ditu istorioko lanabes. Eta sorginkeriaren iruditeria inkisidoreak ikusi nahi zuena baino ez bazen? Eta egun sorginkeriaren gainean osatutako iruditeria osoa, akelarre osoa, sorginkeriaz akusatutako emakume talde batek inkisiziotik alde egiteko asmatutako fikzioa balitz? Filmak hari horri heltzen dio, eztabaida feminista eta poskolonial bizietarako abagunea izan den gai bat jorrazteko. Indarkeriaren kontakizuna ezartzeko elementuen faltan, kontakizunaren irudikapenaren gaineko alegia bat asmatu egiten du. Eta asmakuntza horrek subjektuaren eraikuntzaren gaineko bide interesgarriak jorrazteko aukerak zabaltzen ditu.

Erronka honi aurre egiteko asmatzen duen fabulak iruditeriaren formakuntza, identitate, begirada eta desiraren arteko harremanean sakontzeko aukera ematen du. Era honetan, filma interpelazioaren teoriaren gainean eta honek gorpuztutako praktiken zein agentziarekin duen harremana eguneratu, irudikatu edo haragiztatzeko balio dezake. Sorgin ehizetan inkisidoreak sorginak asmatzeko zuen irudimenak jokatu zuen papera gauza jakina da (Azurmendi, 2013) eta filmak pauso bat harago emateko aukera ematen du. Honen harira, inkisidorearen irudimenaren eraikuntza ideologikoaren beste aldean *irudiminen* hezur-haragizko hutsunea dagoela baieztatu dut. Era horretan, sorgin ehizak izan zuen gorputz diziplinamenduaren dimentsioetako bat jorratzen du filmak, hain zuzen ere, eredu cartesiarrak arrazoitik erauzi nahi zen gorputza (Federici, 2017: 227-270) erdigunean jarriz. Horri esker, uler daiteke sorginekin akabatzeko agindutako inkisidoreak sorginduta bukatzen duela, gorpuztutako dimentsio horrek puntu-itsu bat duelako. Inkisidorearen hezur-haragizko begiek —*irudiminen*— bere ideologiaren begiradari —*irudimenerari*— gainezka egiten diote. Horrek ez du sorgin-ehiza gozoagoa egiten, baina halako gertakizunak utzitako irudikapenen inguruko irakurketa berrietarako aukerak zabaltzen ditu.

## ERREFERENTZIAK

- Althusser, L. (2003). Ideología y aparatos ideológicos del estado. In S. Žižek (Arg.), *Ideología. Un mapa de la cuestión* (115-155. orr.). Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.
- Argia (2010). III. Sorgin Eguna egingo dute larunbatean Zugarramurdirin. *Argia*. Ekainaren 17a. Eskuragarri hemen: <https://www.argia.eus/albistea/iii-sorgin-eguna-egingo-dute-larunbatean-zugarramurdirin>
- Artza, J. (2020). ¡Más akelarres! *Hordago El Salto*. Abenduaren 22a. Historia. Eskuragarri hemen: <https://www.elsaltodiario.com/historia/mas-akelarres>
- Azurmendi, M. (2013). *Las brujas de Zugarramurdi: La historia del aquelarre y la Inquisición*. Córdoba: Almuzara.
- Barthes, R. (2001). *S/Z*. Madril: Siglo XXI.



- Barthes, R. (2009). Introducción al análisis estructural de los relatos. In *La aventura semiológica* (215-266. orr.). Barcelona: Paidós.
- Butler, J. (2010). «La conciencia nos hace a todos sujetos». La sujeción en Althusser. En *Mecanismos psíquicos del poder. Teorías sobre la sujeción* (119-146. orr.). Valencia: Cátedra.
- Butler, J. (2018). *Genero nahasmendua: Feminismoa eta identitatearen subertsioa*. Donostia: Elkar.
- Díez Mintegui, M.C. (1999). Mari, un mito para la resistencia feminista. *Ankulegi: gizarte antropologia aldizkaria*, 3, 63-72.
- El Salto TV. (2017/10/10). *Entrevista a Silvia Federici* [On-line bideo fitxategia]. Eskuragarri hemen: <https://www.youtube.com/watch?v=avQTmcYUnnA>
- Federici, S. (2017). *Caliban eta sorgina: Emakumeak, gorputza eta metatze primitiboa*. Donostia: Elkar.
- Gabilondo, J. (2002). Uncanny identity: Violence, gaze, and desire in contemporary Basque cinema. En J. Labanyi (Arg.), *Constructing Identity in Contemporary Spain: Theoretical Debates and Cultural Practice* (262-279. orr.). Oxford: Oxford University Press.
- McDermott, L. (1996). Self-Representation in Upper Paleolithic Female Figurines. *Current Anthropology*, 37(2), 227-275.
- Retolaza, I., eta Sarriugarte, D. (2015). Gizontzeko (andretzeko) garaia. Gabriel Arestiren imaginario poetikoa eta genero-eraikuntzak. *Zaldiarri*, 6. Eskuragarri hemen: <http://www.eakopoesiaegunak.eus/zaldiarri.php>
- Sánchez Ferlosio, R. (2007). *Sobre la guerra*. Madrid: Destino.
- Žižek, S. (2006). *Órganos sin cuerpo. Sobre Deleuze y consecuencias*. Valencia: Pre-Textos.
- Zubiria, A. (2020). Pablo Agüero: «Nos reprimieron tanto que seguimos con la mente de los inquisidores y decimos que eran casos de brujería». *Deia*. Abuztuaren 23a. Eskuragarri hemen: <https://www.deia.eus/cultura/2020/08/23/reprimieron-seguimos-mente-inquisidores-decimos/1060038.html>

## Erreferentzia filmografikoak

- Agüero, P. (2020). *Akelarre*. Espainia-Argentina-Frantzia: Sorgin Films; Tita Productions; Lamiia Producciones; La Fidèle Production.
- De la Iglesia, A. (2013). *Las brujas de Zugarramurdi*. Espainia-Frantzia: Enrique Cerezo P.C.; La Ferme! Productions.
- Olea, P. (1984). *Akelarre*. Espainia: Amboto P.C.